



Noraezean

June Zozaya Castillo

EUSKARA POESIA 17-18 URTE

2. Saria

Nola liteke,
gehien maite nuena
okerrena izatea?

Ni negarrez, zu barrezka,
Kupidok jaurti dit gezi beltza den neska
eta saihesteko egon nintzen iheska.

Ihesaldian zure begiek harrapatu ninduten
eta kaiolan preso erori nintzen.
musuak, besarkadak, irriak
egunero,
joan etorriak, ausentziazko txioak,
begietatik euria
egunero.

Isiltasunak egin ninduen ahaldun
eta nire melodia zenuenez maite,
bota ninduzun hegaldun,
nahiz eta ez nekien alde egiten.

Ito nintzen itsasoaren hondakinetan,
nire malkoetan nabigatzen zeunden bitartean
eta lehorratu nintzen ahazmenaren lurrean.





Kuraia eman zenidan,
baina ezer gabe
utzi ninduzun.

